

Hornitzaileei lagun egiteko programa**EROSKI-K 4.500 FORMAZIO ORDU SUSTATU DITU, TOKIKO IA
400 HORNITZAILEK IRAUNKORTASUNAREN ARLOA INDARTU
DEZATEN**

- Programa 394 enpresa hornitzailetara iritsi da EAEn, Galizian, Nafarroan eta Aragoian, etengabe hobetzen doan diagnostiko eredu individualizatu batekin.
- EROSKIk enpresa bultzatzailearen rola indartu du aliantzak eginez nekazaritzako elikagaien klusterrekin eta tokiko erakundeekin; hala, gaikuntza sustatzen dihardu ingurumen, gizarte eta gobernantza irizpideetan.
- Ekimenak tresna praktikoak eta eduki espezializatuak ematen ditu hainbat arlotan, hala nola karbono aztarna, ontzien ekodiseinua, ekonomia zirkularra, elikaduraren aprobetxamendua eta iraunkortasunaren arloko txostenak.

Elorrio, 2026ko otsailaren 23a.– [EROSKI](#)k Hornitzaileei Lagun Egiteko duen programa indartu du 2025eko ekitaldian. Hala, 4.500 formazio ordutara iritsi da, ingurumena, gizartea eta gobernantza gaitzat harturik. Horretarako, tokian tokiko nekazaritzako klusterren eta Mundu Itunaren lankidetzak izan du. Programa honen harira, kooperatibak dagoeneko 394 hornitzaile diagnostikatu ditu. Bakoitzak txosten individualizatu bat jaso du, eta hartan azaltzen zaie zertan bereizten diren eta zertan hobe dezaketen. Izan ere, ekimen horrek indartu egiten ditu bere ingurunekeko ekoizle ehunaren lehiakortasuna eta iraunkortasuna.

Hornitzaileekin lankidetzak eredu arduratsu bat bultzatzeko EROSKIk duen ekimen nagusietako bat da lagun egiteko programa, batez ere nekazaritzako elikagaien ekoizle txikientzat. Ekimenaren bitartez, kooperatibak tresna praktikoak eta formakuntza espezializatuak ematen dizkie enpresei giltzarri diren arloetan, hala nola ingurumen eragina, prozesuen efizientzia, kudeaketa arduratsua eta arau eskakizun berrietara egokitzea.

2025ean, aurrez aurreko eta online prestakuntza saioak ez ezik, EROSKIk jakintzaren hedapena areagotu du *newsletter*ren bitartez; hiru hilean behin igortzen dizkie hornitzaileei, eta dagoeneko gaikuntzarako 90 ekimenetik gora partekatu ditu lurraldez lurralde.

Formaziorako ordu kopurua 4.500 ordura igo izanak erakusten du nolako apustua egin duen konpainia kooperatibistak diagnostikoan bakarrik ez gelditzeko eta akonpainamendu efektibo, egituratu eta etengabea emateko, horrela hornitzaileentzat errazagoa baita iraunkortasuna aintzat hartzea beren jardueraren ardatz estrategikoen barnean.

*"EROSKIn, balio kate osoan elkarrekin landu beharreko lan bat bezala ulertzen dugu iraunkortasuna. Gure hornitzaileekin mintzatzen garenean, batik bat tokiko hornitzaileekin, ikusten dugu erronka nahiko handia izaten dela ingurumen, gizarte eta gobernantza eskakizun berrietara egokitzea. Lagun Egiteko programarekin, haien ondoan egon nahi dugu, beren burua diagnostikatzen lagundu, eta haien gaitasunak indartu, hobekuntza etengabearekin aurrera egin dezagun. Aurten formazioetan emandako 4.500 orduak zera islatzen dute, egiazko konpromiso bat dugula elkarrekin hazteko elikadura eredu iraunkorrako baterantz", adierazi du **Cristina Rodríguez Domingok, EROSKIren Iraunkortasun arloko arduradunak.***

Lurralde ezarpena eta lankidetzak tokian tokiko ekosistemarekin

Programak bereiz antolatzen ditu lurraldeak, enpresa hornitzaileetan atzemandako beharretara egokituta prestakuntzaren errepide mapa. Hala, dagoeneko 103 hornitzaile ditugu diagnostikatuak EAEn (bertan, jaio zen ekimena, 2022an), 181 enpresa Galizian VEGALSA-EROSKIren eremukoak, eta 55 Nafarroan eta Aragoi, hurrenez hurren. Lurralde bakoitzeko tokiko enpresa hornitzaile guztiekin partekatzen dira gaikuntza ekimenak, prestakuntza espezializatuak eta hiru hilean behingo *newslettterrak*, eta, hala, balio kate osoaren iraunkortasuna sendotzen da.

Nekazaritzako elikagaien klusterrekin lankidetzan jarduteak, berriz, aukera eman digu eduki espezializatuak garatzeko zenbait alorretan, hala nola karbono aztarna, ontzien ekodiseinua, ekonomia zirkularra, klimaren arloko gobernantza eta elikagaien aprobetxamenduaren gaineko arau berrietara egokitzea eta iraunkortasunaren arloko txostenak. Hala, EROSKIk sendotu egin du enpresa bultzatzaile gisa duen rola ekimen kolektibo zenbaitetan; besteak beste: PROALIS eta PROALIS CARBON programak (Galizian Clusagarekin batera lantzen direnak), FoodESG proiektua (EAEko Basque Food Clusterrekin) eta iraunkortasunaren arloko formakuntza (Nafarroako nekazaritzako NAGRIFOOD elikagaien sektorerako), iraunkortasunaren gaineko kudeaketa eta txostenak prestatzeko gaikuntza eta tresna praktikokoak erraztera bideratua.

Aragoi, berriz, kooperatibak beste pauso bat eman du hitzarmena eginda Aragoiko Elikagaien Industriaren Elkartearekin; xedea da gaikuntza ekimen berriak bultzatzea 2026an, eta, horrela, etengabeko akonpainamendu eredu bat finkatzea, balio katearen egiazko beharrekin lerrotatua.

EROSKIrri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.